

AREATZAKO UDALA

UDAL ORDENANTZA

Areatzako Udalbatzak, 2007ko maiatzaren 17an egindako ohiko Osoko Bilkuran, beste batzuen artean, **NORBERAREN DATUAK JASOTZEN DITUEN FITXATEGIAK SORTZEKO ETA EZABATZEKO AREATZAKO UDALAREN ORDENANTZA** onartzeko behin-behineko erabakia hartu zuen.

Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritakoaren arabera, aipatutako erabakia eta dagokion espedientea jendaurrera azaltzen da, hogeita hamar egunetako epean, iragarki hau «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» eta Udalaren iragarki taulan argitaratuz, interesatuek aztertu eta Udalbatzari erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiotelarik. Jendaurreko epealdia amaitu ondoren, Udal Korporazioak behar den behin-betiko erabakia hartuko du, aurkeztutako erreklamazioak ebatziz. Espedientea behin-betiko onetsizat hartuko da epe horretan erreklamaziorik aurkeztu ez bada.

Areatzan 2007ko maiatzaren 17an.—

Alkatea, Josu Basozabal Zamakona.